

EGOKITZAPENA HAUR-ESKOLAN

Urtero bezala iritsi zitzaigun iraila eta honekin batera ikasturte hasierako bizipenak: aurpegi berriak, espazio berriak, urduritasunak... laburbilduz emozio eta sentipen ugariaren azalera. Hezitzaileontzat urtero errepikatzen den egoera, baina era berean desberdina izan ohi dena eta familia askorentzat ezezaguna izan daitekeena. Horregatik iruditzen zaigu garrantzitsua, errespetuan oinarrituta, familia bakoitzarekin haurrak behar duen egokitzapen prozesua diseinatzea, eskaintzea, eta bideratzea, beti ere haurra ardatz hartuta.

Haur-eskolara iristen direnerako haur gehienek etxean atxikimendu irudiak finkatuta daukate (erreferentziako pertsonak, bereziki gurasoak). *Irudi horiek hain beharrezkoa duen segurtasun afektiboa ematen diote. Hasieran, eskolan ez du segurtasun hori eskainiko dion erreferentziarik. Horregatik, hezitzailea atxikimendu-irudi bihur dadin, atxikimenduaren transferentzia eman behar da etxekoan eta hezitzailearen artean. Lotura berri hori eraiki beharko dute, beraz. Lotura horrek ahalbidetuko dio haurrari seguru sentitzen, beldurrik ez izaten, eskolan gustura egoten, beste haurrekin harreman aberatsak izaten eta geroko lan guztiaren oinarria izango den esploraziora jotzeko oinarri sendoak eratzen ("Egokitzapena: elkarlanean ongizatearen bila" A. Urbe, Gara).*

Lotura eraikuntza honetan haurra aktiboa izango da, eta berak gainditu beharreko prozesua izango da egokitzapena. Haurrak berak agertuko digu prozesua nola daraman adierazpen desberdinen bitartez (lasaitasuna, poza, irribarrea, kezka, pena, urduritasuna, beldurra, babes beharra, ezin egona...). Prozesu hau ez da beti lineala izaten, eta hasiera ona eman arren denbora batera atzera egiten duten haurrak ere badaude, baina hau normaltasunaren barruan kokatzen da.

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa izango da baldintza egokiak bermatzea; eta horretarako, lehenik eta behin bi aldein inplikazioa behar beharrezkoa izango da:

Alde batetik, hezitzailearen jarrera irekiak, entzuteko gaitasunak, errespetuak, goxotasunak, segurtasun emaile izateak ... funtzio garrantzitsua jokatuko du. Gurasoei dagokienez, berriz, jakitun izanik ezezaguna izan litekeen egoera berri honek inseguritatea sor lezakeela, konfiantzaz eta jarrera baikorraz ekitea prozesua errazteko modua izango da.

Honetaz gain ez dugu ahaztu behar haurraren adina zein den, txertatuko den taldea berria den ala ez, familiaren disponibilitatea nolakoa den...

Ezin diogu idatzi honi amaiera eman hausnarketa bat mahai gainean jarri gabe, aurretik aipatutako baldintza guztiez gain baztertu ezin dugun faktore garrantzitsu bat bai

baitago: talde bakoitzeko haur kopurua: RATIOA. Goazen beraz heldutasunez jokatu eta haurrak behar duenari erantzutera.

*Ainhoa Garaño, Koikile Arruabarrena, Koro Izagirre eta Ibintza Irigorri.
Urmendi Haur Eskolako hezitzaileak.*